



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2019KO OTSAILAREN 14KO BILERAREN AKTA.

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Berezia eta premiazkoa.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2019.02.14.
Ordua: Eguerdiko 12:30etan.
Tokia: Udaletxeko areto nagusia.

Bertaratuak:
Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Jose Javier Mitxelena Ordoki jn.
Juan Maria Gonzalez Burguete jn.

Bertaratu ez direnak:
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Mentxu Peña Lizarazu and.
Iñigo Sarrias Zoco jn., lanagatik.
Igor Ugalde Salazar jn.

Idazkaria:
M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Ikusirik aztergaiaren premia eta beharra, zinegotziek, aho batez, bilera egitea erabaki dute.

Aztergaiak:

1.-Eskolan 2019. urtean egin beharreko obrak.

1.-ESKOLAN 2019. URTEAN EGIN BEHARREKO OBRAK.

Ikusirik 956/2018 Ebazpena, abenduaren 19koa, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, Haur Hezkuntzaren 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako eta Lehen Hizkuntza-DBHko ikastetxe publikoak hobetzeko eta birmoldatzeko obra proiektuak egiteko Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuentzat laguntzak emateko.

Beharrezko diren lanen aurrekontua eta memoria ikusirik, leihoak aldatzea.

Eskolako Kontseiluak egindako aldeko txostena ikusirik,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako eskolan eta eskolarako beharrezkoak diren obrak onartzea.

2) Diruz laguntzeko eskatzen den inbertsioa hauxe dela adieraztea:
8.502,32 euro, BEZ barne.

3) Hezkuntza Departamentuari aipatutako memorian deskribatuta dauden obrak egiteko diru laguntza eskatzea.

4) Ebazpen hau Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea behar den gainerako dokumentazioarekin.

Bertzerik gabe, eguerdiko 12:30ak izanik, bilera amaitutzat jo da eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Juan Miguel Almandoz Mitxelena.

